

TURISMO AKTIBOA



**VITORIA
GASTEIZ**

turismo
& convention bureau

Gasteiz,

kirola egiteko hiria

**ZURE JARDUERA GUSTUKOENA
INGURURIK BERDEENEAN**

Bizimodu osasuntsuaren sinonimoa den hirian
entrenatzeko edo animatzeko gida

KIROLA, NORTASUN-BEREIZGARRIA

Kirol-oinetakoak jantzi nahi badituzu, 'Walking and running' proiektuak hainbat ibilbide gomendatzen ditu, Gasteizen bertan eta Arabako beste txoko batzuetan: <http://walkingandrrunning.es/eu>



BIZIKLETAZ



Gasteizek DNAn darama kirola. **Europako Hiri Berde (2012)** eta **Global Green City (2019)** izendatu zuten, eta Turismo-helmuga iraunkorra (Biosphere helmuga) ere bada. Bertan egiaztatuko duzu natura dela ariketa fisikoaren aliatu onena. Izan ere, hiriak hamar milioi metro koadro parke ditu, ezin hobeak korrika egiteko zein bizikletaz ibiltzeko.

Euskadiko hiriburuak, gainera, **kalitate goreneko azpiegiturak** ditu kirola egiteko: igerileku olinpikoak –nazioarteko zenbait igerilarik igerileku hauek aukeratu zituzten munduko txapelketak prestatzeko edo denboraldi-aurrerako–, atletismo pistak, tenis kantxak edo golf-zelaia kasu.

Harmailatik, saskibaloia zale amorratua bazara, kalitatea eta kiroltasuna bermatuta daude **Baskonia** eta **Araski** taldeekin. Eta berdin gertatzen da futbolean: **Deportivo Alaves**, **Aurrera de Vitoria** eta **Deportivo Alaves Gloriosas**.

Aukeratu gustuko duzun kirola, jokatzeko zein ikusteko, eta bizi esperientziarik aktiboena eliteko jokalarien sorburu den hirian. Izan ere, bertakoak dira, adibidez, **Martin Fiz** (maratoia), **Almudena Cid** (gimnasia), **Jaiene Ayastuy** (bela) edota **Eneko Llanos** (triatloia).

150 kilometro bidegorririkin, Gasteiz Espainiako bigarren hiri onena da alde batetik bestera bizikletaz ibiltzeko. Ibilbide lasaia den bila bazabiltza, aukera ona da **Senda pasealekua** eta **Fray Francisco de Vitoria ibilbidea** jarraitzea: hiria eta Armentiako basoa lotzen dituen hiru kilometroko ibilbidea da, ehunka urteko zuhaitzen eta jauregien artean.

Beste aukera bat da hiriko parkeak ezagutzera joatea: ezagunena **Florida** da (1820. urtekoa), baina **Judimendik** (antzinako hilerri judua), **Arriagak** (hiriko parkerik handiena), **San Martinek** (urmael eta arrosekin) eta ares-tian aipatutako Prado parkeak ere historia luzea eta txoko erakargarriak dituzte.

Bestalde, **Eratzun Berdean** aukera dago bide osoa egiteko, 33 kilometro, edo parke eta berdeguneetatik igarotzen diren paseoak egiteko. Eratzuna, gainera, **zikloturismoa zakutoekin** egiteko ibilbide ezin hobekin lotzen da, adibidez, Ibilbide Handia Arabako Lautadatik (117 km), Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdea (125 km) edo Uribarri Ganboako urtegiaren inguruko ibilbidea (43,6 km).

Gustatzen zaizuna **mendiko bizikleta** bada, Gasteizetik hurbil dauden bi parke naturaletan Izki Arabako Mendialdea BTT Zentroa eta Valderejo Añana BTT Zentroa topatuko dituzu. Beren kokapena bikaina da mendiko bizikletarekiko zaletasuna eta naturaz gozatzeko aukera uztartzeko.

Eta **errepideko txirrindularitza** nahiago baduzu, berriz, aukera duzu kirol hori praktikatzeko hirian bertan eta, oro har, Araban, paisaia ikusgarrietatik eta hainbat mendatetatik.

Bizikleta alokairua: v-g.eus/alokatu

Bizikleta eta BTT : v-g.eus/bizikletaetabtt



RUNNING



Arabako hiriburua Espainiako korrikalari askoren helmuga da. Bertan egiten dira **Ironman Gasteiz**, **Martin Fiz Maratoia** eta **Gasteizko Maratoi Erdia** lasterketak. Diziplina horrek tradizioa du Gasteizen, eta hiriak baldintza ezin hobeak eskaintzen ditu ekitaldiak zein banakako korrikalariak hartzeko.

Hiri barruan korrika egiteko topagune tradizionala **Prado parkea** da. Antzina, etxeko animalientzako bazkalekua zen, eta gaur hiriguneko birika berde nagusietako bat da. Bertan, 21 zuhaitz mota daude, eta batik bat 1995. urtean munduko maratoi txapeladun hilakatu zen Eizi zor dio ospea.

ERREFERENTZIAK

- **Kirol-instalazioak:** v-g.eus/kirolahirian
- **Ironman Gasteiz, Martin Fiz Maratoia, zikloturismo txapelketa nagusiak eta bestelako ekitaldiak:** v-g.eus/ekitaldiak

Hiria inguratzen duen **Eraztun Berdean** ere ibilbide eta txoko ederrak daude korrika egiteko. Parkez osatutako gerriko antzekoa da, eta horien artean **Salburua** nabarmentzen da bereziki: hirigunetik hiru kilometrora dago, eta bertan dugu Euskadiko hezegune kontinental baliotsuenetako bat.

Eta **hiriaren inguruan** aukera asko dago, gune natural eta ibilbide berde mordoak baitago. Izatez, Arabako azaleraren ia hiru laurdenek babes mailaren bat dute.

- **BTT zentroak, zikloturismo ibilbideak, eskalada, hipika eta parapente eskolak, eta jarduerak antolatzen dituzten enpresak:** bit.ly/guidadeportealava
- **Ariketa fisikoa eta osasuna, eta kirol egokitua:** vitoriagasteizsports.com/eu/
- **Eusko Jaurlaritzaren 'Euskadi oinez', 'Euskadi bizikletaz', 'Ibilbide Handia Arabako Lautadatik' eta 'Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdea' liburuxkak, besteak beste:** bit.ly/euskadiliburuxkak
- **Sobron eta Hontza Extrem Abentura anitzeko parkeak:** aventurasobron.com / bit.ly/hontzaeu

Informazio guztia eguneratua hemen: www.vitoria-gasteiz.org/turismoa

EZINBESTEKOAK

Erreserbak eta informazioa
bisita tematiko hauei eta beste batzuei buruz
Turismo Bulegoa. +34 945 161 598 / 99



HIPIKA ETA PASEOAK ZALDIZ

Zenbait hipika enpresa eta klub daude Gasteiz inguruan. Paseoz gain, zaldi-heziera klasikoa, adin guztietako laguntentzako ikastaroak, ekinoterapia saioak eta zaldien estatutzea eskaintzen dituzte. bit.ly/guiahipica

MENDIZALETASUNA

Hiriaren hegoaldean, Gasteizko mendiak altxatzen dira. 1.000 metroko garaierarekin, batez bestez, zenbait pagadi eta erkametz baso zabal bat daude bertan. Horrez gain, nabarmentzekoak dira Gorbeia eta Valderejo parke naturalak, Badaia eta Arrato mendilerroak, eta GR 38 Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea.



XENDAZALETASUNA

Hiriko lorategien ibilbideak eta Eraztun Berdeak xarmaz beteriko txokoetatik eramango zaituzte. Hiritik igarotzen diren bideak dira, eta lotura dute errepideekin, bide berdeekin, erromes-bideekin eta bidezidor labur zein luzeekin. caminos de peregrinación y senderos de pequeño y gran recorrido. v-g.eus/senderismo



NORDIC WALKING

Ibilbide nordikoa egiteko Euskadiko zentroen sareak hamabost bat zentro ditu Araban. Horietan guztietan, ibilbideak markatuta dituzten mapak emango dizkizute, eta makilak aloka ditzakezu. Ibilbideak zailtasun-mailaren, iraupenaren eta maldaren arabera sailkatuta daude.

nordicwalkinggunea.net

ESKALADA

Eskalada librea, kirol eskalada, artifiziala, bakarkakoa edo boulder. Gure lurraldean modalitate guztiak egin daitezke, izan ere, 11 eskalada eskola eta hainbat enpresa espezializatu daude. Halaber, zenbait rokodromo daude hirian.



PARAPENTEA ETA ALA DELTA

Gasteizko txokoez gain, aski ezagunak dira Entzia (Agurainen), Delika (Aiaran), Gorobel mendilerroa eta Toloño mendilerroa.



URETAKO KIROLAK

Zadorraren sistemako urtegieta sarritan joaten dira windsurf, arrauna eta bela arina egiten duten pertsonak. Gainera, klub nautiko bat dago, jabetxearekin, kirol-arrantzarako barrutiekina eta Estropadatarako Nazioarteko Eremuarekin. Horrez gain, paddle surf eta kayak egiteko, Ebro ibaiaren zenbait zatik ere ospe ona dute. Kanoa zaleek, berri, Albina urtegia aukeratu ohi dute.

bit.ly/ullibarrigamboa



HERRI KIROLAK

Herri-kirolek landa-inguruneke lanetan dute jatorria; gaur egun, erromerietan eta herrietako jaietan egiten dira kirol horien erakustaldiak. Adibidez, harria jasotzea, enborra mozte eta idi probak. v-g.eus/euskalkirolak



ESKU PILOTA

Jarraitzaile mordoak du urtean zehar, eta partidak jokatzen dira, besteak beste, Gasteizko Beti Jai pilotalekuan.

GASTEIZ

Gozatu Green Hiriburuaz!



Andre Mari Zuriaren Plaza

Gasteiz berez da harrigarria. Europan, berdeguneen azalera handienetakoa duen hiria da; bai pasieran ibiltzeko, korrika egiteko edo bizikletaz ibiltzeko, bai hegaztiak ikusteko, bai zaldiz ibiltzeko.

'European Green Capital 2012'

sariak, 2016tik Turismo Helmuga Jasangarria izateak eta 'Global Green City 2019' izendapenak, nazioarte mailan ingurumenarekin konpromiso handienetakoa duen hirietako bat dela baieztatzen dute. Zatoz Gasteiz ezagutzera!



Eraztun Berdea

Festak eta kultur-adierazpenak. Goi-mailako proposamenak eskaintzen ditu ekitaldien egutegiak. Adibidez, Jazzaren Nazioarteko Jaialdia, Azkena Rock Festival, Magialdia, Kaldearte (arteak kalean), Nazioarteko Antzerki Jaialdia eta FestVal-a (telebista) daude. Baita kirol-txapelketak ere; adibidez: Martin Fiz maratoia edo Gasteizko Ironmana. Eta, jakina, gure kulturaz gozatzeko oneak: herri-kirolak, folklorea, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak (Arabako zaindariak), Santiago eguna eta Andre Maria Zuriaren festak ahaztu gabe, non penintsularen iparraldeko jai-giro onenetako bat bitzitu ahalko duzun.




Muralismoa

Ondare historikoa. Gasteizko Erdigune Historikoa monumentu-multzo izendatu zuten 1997an; bere horretan kontserbatzen du Erdi Aroko trazadura,




eta bisitaria antzinako garaietara eramaten duten txokoak ezkutatzeko dituzte. **Santa Maria katedralaren** edo Katedral Zaharraren (XIII. mendea) eta **Erdi Aroko harresiaren** (XI. mendea) kasua da hori; biak ala biak nahitaez ikusi behar direnak. Hala ere, ezin ditzakegu ahaztu bere elizak eta Goiuri, Montehermoso eta Eskoriatza-Eskibel jauregi errenazentistak.



Andre Mari Zuriaren Jaia

Enogastronomia. Gastronomia Hiriburu Nazionala izan zen 2014an; izan ere, plater tradizionalenak eta euskal sukaldaritzaren sorkuntza berri-tzaileenak dasta daitezke Gasteizen, bai jate-txeetan, bai pintxoaren tabernetan, poltsiko guztietarako eskaintza zabalarekin. Hori guztia Arabako Errioxako ardoekin eta Arabako txakolinarekin batera. Eta, postreerako, hiriko gozogintza-tradizio apartak ematen dizkigun sorkuntza gozo askotarikoak. **Ardoaraba** azoka enogastronomikoari, **Pintxoaren Aste Nagusiari** eta **pintxo-poteari** esker, kalean bertan goza daitezke zapore onenez.



Santa Maria Katedrala

Olagibelen **Arkupeak** (XVIII. mendea) Erdi Aroko Arbendolaren eta Zabalgunen neoklasikoaren arteko malda libratzen du. **Andre Maria Zuriaren plazatik** eta **Espania plazatik**, merkataritza-giro handia duten oinezko-kaleetara iritsi zaitezke.

Natura. Gasteiz 115.000tik gora zuhaitz ditu hiriguneko kale eta parkeetan sakabanatuta, Eratzun Berdean daudenez gain. Parkeen artean, nabarmentzekoa da erdigunean bertan **Florida Parkea**, XIX. mende hasierakoa. **Eratzun Berdean**, bestalde, oinezko-ibilbideen eta bizikleta-ibilbideen sare zabala dago eta, parkeen artean **Salburuko hezeguneak** aipamen berezia merezi du. Bertan, hegaztiak, oreina eta desagertzeko arrisku larrian dagoen bisoi europarra beha daitezke. Hantxe dago **Ataria**, natura ezagutzeko zentroa.




Ataria



Pintxoak

Museoak. Arte garaikideko bilduma itzelarekin, aldi baterako erakusketa interesgarriak eskaintzen dizkigu **Artium museo-zentroak**. **Arte Ederren** museoa eta **BIBAT** museoa ere badauzkagu. Azken horretan, **Arkeologia museoa** eta **Fournier Karta museoa** biltzen dira, munduko karta-bilduma onenarekin. Maria Sortzez Garbiaren katedralak edo Katedral Berriak **Arte Sakratuaren museoa** dauka. Halere, ezin ditzakegu museo bitxiak ahaztu, Arma museoa edo **Farolen** museoa, adibidez, beregeneroan bakarra izaki azken hori.



Artium

Arabako ERRIOXA

Gasteiztik hegoaldera, kilometro gutxira, mahastiz ereindako paisaiatz goza dezakezu, bai eta bertako ardoak dastatu ere, upeltegi tradizionaletan zein Calatravak, Cheryk edo Mézieren diseinatutako eraikin abangoardistetan. Iparraldera kilometro gutxi batzuk eginez, **Aiarako baltararen** paisaia ederra aurki dezakezu; Arabako txakolinaren sortlekua.

Toki SINESTEZINAK

Añanako Gatzagak behatzea ahalbidetzen dizu **Gatz Haranak**. 6.500 urtetik gora dituzte aipatu gatzagek, eta, oraindik ere, **Añanako gatz**a ekoizten dute, chef ospetsuenek erabiltzen dutena. **Arabako lautadan**, toki hauek bisitatu daitezke: **Estibalizko Andre Mariaren basilika** erromanikoa, **Aguraingo** hiribildua, **Gazeo** eta **Alaizako** margoak eta **Egilazeko** trikuharria.

IBILBIDE ETA BISITA GIDATUAK

Ibilbide eta bisita gidatuen eskaintza handia dago, eta, horiekin, ikuspuntu guztietatik ezagutu ahalko duzu hiria.

Erdi Aroko Erdigunea ezagutzeko bisitak; maitasun- istorioen haria, literatur-lanen eszenatokiak edo legendetako pertsonaiak jarraituz, hiria ezagutzeko bisitak; Santa Isabel hilerria edo Horma-irudien ibilbide bitxia ezagutzeko bisita gidatuak. Baita, korrika egin edo bizikletaz ibili bitartean, hiria zeharkatzeko proposamenak ere.

ENOGASTRONOMIA

Hornidura-azoka bisitatzeaz gain, ezin ditzakegu ibilbide gastronomikoak eta gidatutako dastaketak ahaztu; izan ere, Gasteizko produktu onenez eta giro bikainez gozatu ahalko dugu horietan.

Non jan, atsedean hartuz kafe bat non hartu, oroigarri polit bat non erosi edo gaueko giroaz non gozatu jakin nahi baduzu, eskatu IZARREN GIDA turismo-bulegoan. Gasteiz On Merkatarien Elkartearen ekimena da aipatu gida.

MUSEOAK ETA KULTUR-ZENTROAK

Artium Arte Garaikidearen Euskal zentro-museoa / Bibat Arkeologia museoa eta Fournier Karta museoa / Arte Ederren museoa / Natura Zientzien museoa / Arma museoa / Arte Sakratuaren museoa / Farolen museoa / Montehermoso Kulturunea / ATARIA Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa.

BALIABIDEEN GIDA

Larrialdiak, Ertzaintza.112

Pediatriako larrialdiak: 945 00 70 00

Radiotaxi. 945 27 35 00


Radio-taxi Celedón 945 27 20 00

Udaleko ibilgailu-gordailua. Agirrelanda 8.
945 161 100 / 945 158 000

Renfe. 912 320 320

Aireportua. 945 163 500 / 902 404 704

Autobus-geltokia. 945 161 666



**VITORIA
GASTEIZ**
turismo
& convention bureau



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Europako Hiriburu Berdea 2012.
Vitoria-Gasteizek 2016tik dauka **Biosphere Responsible Tourism** ziurtagiria, helmuga turistiko jasangarria dela egiaztatzen duena.

INFORMAZIO GUZTIA HEMEN

Turismo-bulegoa, Espainia plaza 1

945 16 15 98 / 945 161 599

turismo@vitoria-gasteiz.org

Irekitzeko orduetgia: Al-Lr 10:00etatik 19:00etara

Igande eta jaiegunetan: 11:00etatik 14:00etara

www.vitoria-gasteiz.org/turismoa



turismo_vitoria



turismovitoria